



geurien

euskera hitzarmena

1. alea

Zergatik Geurien aldizkaria?



Kaixo lagun!

Esku artean daukazun hau Geurien aldizkariaren 1. alea da; udaberrian, herriko elkarte, merkatar, ostalari eta zerbitzu-enpresek egindako hausnarketaren fruituetako bat.

Geurien egitasmoa 2001. urtean martxan jarri zenetik, Elorrioko 180 eragilek baino gehiagok euskara indarberritzeko konpromisoa hartu duzue.

Aurtengo udaberrian, euskararen aldeko hitzarmena sinatu duzuen eragileekin Elorriion euskarak bizi duen egoeraren inguruko hausnarketa egiteko saioak antolatu ditugu eta hurrengo hilabeteetarako plangintza osatu.

Aldizkari hau plangintza horretan zehaztutako ondorioetako bat da, eta bi helburu nagusi ditu: alde batetatik, Elorriion euskara bultzatzeko egiten diren ekimenen berri ematea, eta, bestetik, euskaraz bizitzen lagunduko diguten hainbat tresna eta baliabide ezagutzera ematea.

La revista Geurien, ahora en tus manos, surge de la colaboración entre el Ayuntamiento y los más de 180 agentes del ámbito asociativo y comercial de Elorrio firmantes del acuerdo Geurien.

La revista nace con un doble objetivo, por una parte informar sobre las distintas iniciativas para impulsar el uso del euskara, y por otra parte, dar a conocer los distintos medios o instrumentos que os ayuden a utilizarlo.

Geurien hitzarmena sinatu dutenen artean adostutakoa

Elgorrioko Udalak Elhuyar Aholkularitzaren zerbitzua kontratatu du 2008 urtean, aurretiaz Barriketan Euskara Elkarteak egindako lanaren jarraipena egiteko. Lerro hauek aprobetxatu gura ditugu Barriketani eskerrak emateko zazpi urte hauetan egindako lanagatik.

Esan legez, aurtan, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzaz, hitzarmena sinatu duten eragileekin lanean jarraitu dugu lantalde bi sortuz; alde batetik, herriko elkarteekin sortutako lantaldea, eta bestetik, merkatari, ostalari eta zerbitzu-enpresekin sortutakoa. Euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egiteko lantalde bakoitzarekin hiru saio egin ditugu udaberrian, eta urte amaieran beste saio bana egitea aurreikusi dugu.

Hausnarketaren ondorio legez, aurtan honako ekimenak jarriko ditugu martxan:

- Geurien euskaraz itsasgarria: euskarazko zerbitzua eskaini dezaketen komertzio eta elkarteetan euskara erabiltzera animatzeko ipiniko dugun itsasgarria.
- Geurien katalogoa: Elgorrioko Udalak Geurien hitzarmena sinatu dutenei eskaintzen dizkien bitartekoak jasotzen dituen katalogoa.
- Geurien aldizkaria: Geurien hitzarmenaren inguruko berriak, ekimenak eta euskarazko baliabideen berri emateko bidea.
- Geurien hitzarmenaren aitortpen ekitaldia: sinatzaileek egiten duten lana txalotzeko ekitaldia.

Elkarte, merkatari, ostalari eta zerbitzuekin lanean aritzeaz gain, aurtan, Elgorrioko enpresekin hasi gara lanean. Elgorrioko 15 enpresatan sustapen lana egin dugu, Geurien hitzarmenaren berri eman eta euskara-planen inguruko informazioa zabaldu diegu.

Ikusten duzue, denon konpromisoari esker euskara Elgorrioko esparru gehiagotara zabaltzen dihardugu.



El Ayuntamiento de Elorrio ha contratado los servicios de Elhuyar Aholkularitza para continuar con los acuerdos Geurien hasta ahora llevados por la asociación Barriketan Euskara Elkarte.

Mediante estas líneas queremos hacer llegar nuestro agradecimiento a Barriketan, por la labor realizada durante estos siete años.

Durante las sesiones realizadas en abril y mayo con miembros de las distintas asociaciones y comerciantes de Elorrio se adoptaron una serie de medidas para el impulso del euskara: la colocación de la pegatina "geurien euskaraz", la publicación del catálogo informativo, la revista "Geurien" y un acto de reconocimiento del trabajo realizado por los/las firmantes del acuerdo.

GEURIEN HITZARMENAREN AITORPEN EKITALDIA:

URRIAREN 30ean 20:00etan Udaletxeko pleno aretoan

Urriaren 30ean, eguena, arratsaldeko 8etan, Geurien hitzarmena sinatu dugunok, udaletxeko pleno aretoan elkartuko gara orain arte egindakoa txalotzeko eta aurrera begira egin beharrekoa zehazten joateko. Ekitaldi labur horretan diplomak banatuko ditugu, eta amaieran luntxa egongo da.

Ikusten duzue oso garrantzitsua da bertara joatea, elkar ezagutu eta ikuspuntuak eta iritziak trukatzeko.

El 30 de octubre, jueves, a las ocho de la tarde, los/las firmantes del acuerdo Geurien nos reuniremos en el salón de plenos del Ayuntamiento de Elorrio en un acto de reconocimiento de la labor desarrollada hasta el momento. En dicho acto, que será muy breve, marcaremos las pautas a seguir en adelante, distribuiremos diplomas y acabaremos con un lunch.

Es muy importante la asistencia, ya que facilitará el conocernos y, de paso, intercambiar impresiones.

Elorrioko Udalaren eta Gizarte Erakundeen Kontseiluaren arteko hitzarmena

2008ko maiatzaren 8an egindako plenoan Elorrioko Udalak Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluarekin hitzarmena sinatzea onartu zuen. Hitzarmenaren bitartez Kontseiluak udalaren hizkuntza-politika neurtzeko konpromisoa hartu zuen, eta Udalak, aurkitutako hutsuneak konpontzekoa. Adostu legez, Kontseiluak ekainean egin zuen udalaren hizkuntza-politikaren neurketa, 5,66ko puntuazioa lortuz.

Euskal Herri osoan aztertutako herrien artean, Elorrio 11.a geldituko litzateke; Bizkaian 5.a eta euskararen ezagu-tza tasa % 70-80 dutenen artean, Euskal Herri mailan 5.a ere.

Positiboki nabarmentzekoak:

- Jarritako baliabideak, horien artean euskararen aurrekontua. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin jarritako helburua.
- Komunikazioetan nahiz hizkuntza-paisaian euskara nabarmentzeko politika.
- Euskara sustatzeko politika lan munduan eta merkataritza bezalako esparruetan.

Hobetu beharreko elementuak ere badaude eta horretan jarriko ditugu indarrak, hemendik hiru urtera berriro egingo den neurketan puntuazioa hobetzeko asmotan.

Gizarte Erakundearen Kontseiluak egiten duen lana ezagutzeko, bisitatu ondoko web orria: www.kontseilua.org/



Gracias al acuerdo firmado entre el Ayuntamiento de Elorrio y el Consejo de las Asociaciones Sociales del Euskara, Kontseilua, en junio de 2008 se realizó una evaluación de la política lingüística aplicada por el Ayuntamiento.

Como elementos positivos se citaron los presupuestos para el área del euskara, el paisaje lingüístico y los acuerdos firmados con representantes del ámbito socioeconómico de Elorrio.

ELKARTEEK DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO IRIZPIDEAK ELORRIOKO UDALEAN

Udalak elkarteei dirulaguntzak esleitzeko orduan hainbat hizkuntza-irizpide hartuko ditu kontuan.

Ondokoa baloratuko da:


- Esku-programa, karteletan, iragarki eta abarretan euskararen presentzia eta trataera.
- Ahozko komunikazioetan euskara hutsa erabiltzea edota euskara lehenestea bi hizkuntzak erabiltzen direnetan.
- Herritarrei zuzendutako ekitaldi publikoetan aurkezpenak euskaraz egitea edota euskara lehenestea bi hizkuntzak erabiltzen direnetan.
- Komunikabideetan egingo den publizitatea euskara hutsez edo ele bietan izatea.

Hurrengoak ere baloratuko dira:

- "Geurien" hitzarmena sinatua izatea.
- Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzea.
- Publizitatea, web orria, irudi korporatiboa... euskaraz izatea.

El Ayuntamiento, a la hora de evaluar las subvenciones destinadas a las distintas asociaciones, valorará el uso del euskara, tanto a nivel oral como escrito: carteles, anuncios, actos públicos, publicidad, etc.

elkarrizketak...



ARGAZKI TALDEA

Zein da argazki taldean euskarak duen egoera? Euskara erabiltzen da?

Gaur egun ezin dugu zehaztu zein den euskararen egoera talde barruan. Aztertzen ari gara euskararen erabilera eta ezagupena gure bazkideen artean. Egoera zein den, eta bazkidearen nahia, jakiteko eta argitzeko asmoz, zuzenean beraiei galdetu diegu euskararekin zer konpromiso mota hartuko luketen.

Emaitzak aztertu eta gero, konpromisoak, eginkizunak, eta helburuak finkatuko genituzke talde barruan.

Elorrioko Argazki taldeko partaideok argi daukagu, ahal den neurrian, kanporako eta barneko funtzionamendurako hizkuntza euskara dela.

Bitartean, talde barruan euskaraz mintzatzen saiatzen gara, barne dokumentazioa bi hizkuntzetan daukagu, baita kanpora zuzentzen den komunikazioa, kartelak etab.

Zer egin daiteke Elorrioko euskararen erabilera handitzeko, indartzeko?

Hainbat ekintza egin daitezke euskararen erabilera bultzatzeko, baina gure ustez, garrantzitsuenetariko bat euskara dakienak normaltasunez erabiltzea da, hor dago gakoa. Horrez gain, ez dakienari eta ikasi nahi duenari, laguntza eskaintzea, ekintzetan, batzarretan, euskararen presentzia nabarmentzea, etab. Laburbilduz, "euskara erabili" egin behar da, hau aurrerapauso handia litzateke.

Maiatzean egin genituen saioetan parte hartu zenuen: zein ondorio atera zenuen bertatik?

Elorrioko euskararen egoeraren berri izan genuen, eta kultur taldeek egoera honi bultzada bat emateko garrantzizko gailuak direla ondorioztatu genuen.

Zein da Elorrioko elkarteetan euskarak duen egoera?

Ez dugu ezagutzen egoera zehatzik. Hala ere, talde askok euskararekin konpromiso minimo batzuk hartuta dauzkatela uste dugu; dena den, elkarteei, bakoitzari zuzenean luzatu behar zaion galdera bat da.

Estamos analizando la situación del euskara en la asociación. Una vez realizado el diagnóstico estableceremos los compromisos y objetivos necesarios para impulsar el euskara dentro de la entidad.

Se pueden realizar muchas cosas para impulsar el euskara pero lo más importante es que las personas que conocemos el idioma lo usemos con normalidad.



ORBELA LORA ETA OPARI DENDA (Ima Gabiria)

Komertzioetan zein zailtasun dituzue euskaraz egiteko?

Batez ere itzulpenak egiterakoan dauzkagu zailtasunak. Hitz egiten jakin arren, batzuetan, gazteleratik euskarara zerbait idatzi behar dugunean, ez dakigu zehatz-mehatz nola egiten den.

Zein norabidetan eman behar dira euskararen aldeko urratsak?

Beti aurrera. Hasieran egiten dena txikia izan arren, denborarekin eta denon artean bultzada handi bat eman diezaiokegu euskarari.

Zergatik sinatu zenuten Geurien hitzarmena?

Alde batetik euskara bultzatzeko. Bestetik uste dut, komertzioak aukera handia ematen duela jendearekin harreman euskalduna izateko.

En muchos comercios tenemos dificultades para realizar traducciones. Aunque sepamos euskara nos resulta difícil escribir ciertas cosas en este idioma.



EROSKI (Jesús Miguel Euba)

Zergatik euskara Eroskin?

Gure lana gizarteari zuzendua dago eta gizarte honetako pertsonen eskubidea dute ofizialak diren 2 hizkuntzatan zerbitzua jasotzeko. Horrez gain, bertokoak gara eta gure lan-kulturaren arabera, gure aktibitatea garatzen dugun tokian kulturalki (ez bakarrik ekonomikoki) gizartea aberasten lagundu beharra dugu. Pertsonen ibilbidean, hizkuntzari dagokionez, maiz, geldiune bat egoten da ikasketetan eta lan-munduan murgiltzen direnean. Honek arazo bat dakar hizkuntzaren normalizaziorako.

Orain arte zein izan dira Eroskik emandako urratsak euskara bultzatzeko?

- Kanpora begira, gizarteari begira: euskararen aldeko ekimenetarako diru-laguntzak, babesak... eskaintzen ditugu. Kontsumitzaileei euskarazko informazioa eta trebakuntza eman diegu.

- Barrura begira: langileen ezagutza eta erabilera sustatzeko plan konkretu bat daukagu martxan. Horrez gain, dokumentazioa eta paisaia ele bietan daukagu.

Zein da hemendik aurrera Eroskik jarraitu beharreko bidea?

Bide berari jarraitu beharko genioke. Trebakuntzaren arloan gehiago eragin beharko genuke. Horrez gain, orain onartu berri den kontsumitzaileen eskubideei buruzko dekretuak eskatzen duena kontuan hartu behar dugu. Azkenik, euskararen normalizazioan eragiteko, hainbat erakundeekin elkarlanean arituko gara.

De ahora en adelante tenemos que realizar un mayor esfuerzo en el ámbito de la formación. Además tenemos que tener muy presente el Decreto sobre los derechos de los consumidores.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko dekretua

Industria, Merkataritza eta Turismo eta Kultura sailburuak proposatuta, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko dekretua onartu zuen uztailaren 1ean Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak. Dekretuak Elorrioko merkataritzari zuzenean eragiten ez badio ere, komenigarria da gogoan izatea eta abian jartzea berandu baino lehen.



Dekretuak ezartzen dituen betebeharrak:

Idatzizko informazioa ematerakoan, euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira:

- Seinaleztapen guztia
- Errotuluak eta kartelak
- Inprimakiak eta katalogoak
- Kontratuak eta baldintza orokorren agiriak
- Komunikazioak eta jakinarazpenak, fakturak aurrekontuak, eta abar.



Ahozko informazioa eta publikoari zuzeneko arreta eskaintzerakoan:

- Megafonia bidezko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko da.
- Ahozko informazioa eta aholkularitza euskaraz eta gaztelaniaz emateko gai izan beharko dute enpresek eta establezimenduek.

Ahozko informazioa esaten denean, bitarteko telefoniko eta elektronikoen bidez ematen den informazioa ere esan nahi da.

El Decreto sobre los derechos lingüísticos del consumidor aprobado por el Gobierno Vasco no afecta directamente al sector comercial de Elorrio.

Aún así sería conveniente poner en práctica algunos aspectos de la misma: señalización, rotulación, impresos, catálogos, contratos, comunicaciones orales, etc.

Euskara eguneroko bizitzan txertatzeko ideiak:

EGIZU ERRAZA DA ETA!

Kutzazain automatikoa



Zure txartela edo aurrezki-libreta kutxazain automatikoan sartu eta aukera ezberdinak agertuko zaizkizu. Kutxazain batzuetan zuzenean ikusiko duzu hizkuntza aldaketarako aukera beste batzuetan, "beste eragiketa batzuk" diotenari eman lehenengo eta gero hizkuntza aukeratzeari. Horren ostean euskara aukeratu!

Sakelako telefonoan erantzungailu automatikoa



Sakelako telefonoen (mobilak) kasuan, batzuetan bakarrik daukazu euskaraz ipintzeko aukera (Siemens eta Motorola); kasu horretan, berak adierazitako pausoei jarraitu beharko diezu.

Helbideak euskaraz



Eskutitz, txartel eta abarretan helbideak euskaraz idaztea posible da, Elorrioko udalak kale izendegia dauka. Begiratu udaleko web-gunean (www.elorrio.net) (Kaleak, zerbi-tzuak). Izen horiek ofizialak dira, beraz, ez dugu zertan euskaratzeko lanik egiten ibili behar.

Euskaraz nabigatu



Ziurtatu Internet Explorer irekita duzula, Tresnak menuan, Internet aukerak hautatu. Ondoren, hizkuntzak botoia sakatu.

Leiho bat zabalduko da, gehitu sakatu behar dugu.

Beste leiho batekin, hizkuntza-zerrenda bat agertuko zaigu, hor euskara aukeratu behar dugu.

Zer egin gure establezimenduetan euskara bultzatzeko?

Kontuan hartuta Elorrioko biztanleriaren % 70 inguru euskalduna dela, aukera ezin hobea dugu euskara erabiltzeko eguneroko harremanetan. Gainera, dendak, tabernak eta zerbitzu-enpresak elementu garrantzitsuak dira eguneko bizimoduan, eta ekarpen handia egin dezakete euskararen erabileran. Hona hemen aholku batzuk:

- Bezero eta hornitzaileei lehenengo hitza euskaraz.
- Euskaldunekin beti euskaraz.
- Dendako errotuluak, kartelak, menuak eta abar, euskaraz jarri.
- Fakturak, ordain-agiriak, eskariak eta abar, euskaraz egin.
- Euskarazko irratzi-saioak jarri.

En Elorrio el conocimiento del euskara es mayoritario, ya que lo conoce el 70% de la población; por otra parte, hay mucha gente con ganas de aprenderlo, lo cual nos facilita el poder utilizarlo en nuestras relaciones.

¿Cómo podemos conseguirlo? Todo el mundo tiene un conocimiento mínimo, por lo tanto utiliza lo que sepas, palabras sueltas, saludos etc. Así podrás ir mejorando tu nivel y seguro que también agradecerán tu interés y esfuerzo.

Por otra parte no supone un esfuerzo considerable la colocación de carteles, rótulos... en euskara ya que dispones de la ayuda de Elhuyar Aholkularitza y el Ayuntamiento te ofrece ayudas económicas.

Web gune handiak euskaraz: Netvibes, Google, Google maps,

EUSKARAZKO BALIABIDEAK INTERNETEN

Euskarazko software:

Web gune handiak euskaraz:

- www.microsoft.es/eus
Netvibes, Google, Google maps,
Tagzania...

Euskarazko software:

- www.microsoft.es/eus

Menu bihurgailua:

- <http://www.euskaraz.org/platerean>

Euskara ondo erabiltzeko gida:

- <http://www.ehu.es/azpidazki/>

Euskaltzaindiaren arauak:

- <http://www.euskaltzaindia.net/>

Euskalduntze baliabideen inguruko web orriak:

- <http://www.karrajua.org/baliabideak>
- <http://www.ikasbil.net/jetspeed/>

EUSKARA IKASTEKO AUKERAK

- Abizari Euskaltegia (AEK)

San Juan 21-behea, Elorrio

Tlf: 946 582 111

e-posta: abizari@aek.org

- Euskaraz ikasi internet bidez

<http://www.boga.habe.org/>

Tlf: 946 582 111

e-posta: abizari@aek.org

- Euskaraz ikasi internet bidez

<http://www.boga.habe.org/>



ELORRIOKO UDALA
Euskara zerbitzua
Gernikako Arbola Plaza
48230 Elorrio-Bizkaia
Telf: 94 658 27 12



ELHUYAR AHOULKARITZA
Landako elkartegia
Landako etorbidea 4,
202 bulegoa,
48200 Durango-Bizkaia
Telf: 94 466 88 16



BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura